

Laudio, 2023ko irailak 15

Laudio Udalak Anbulatorioaren kokapenaren afera itxi du eta eskainiko dituen zerbitzuetan zentratuko da

- *Lurren lagapenerako espedientea behin aztertuta, Gobernu Taldeak obra lizentzia izapidetu du, eta, aldi berean, bere desadostasuna erakutsi du Anbulatorioaren kokapena ebazteko prozedurarekin.*
- *"Ahalik eta ekipamendu osatuenak izango dituen Anbulatorioa lortu nahi dugu", adierazi du Ainize Gastakak.*

Laudioko Udaleko Gobernu Taldeak, Ainize Gastaka Alkatea buru dela, prentsaurrea eman du Latiarren kokatzea aurreikusten den Laudioko Anbulatorioaren egoeraren berri emateko.

Talde biak bat datoz Laudioko osasun azpiegiturak hobetu eta handitzeko behararekin eta hala adierazi dute oposizioan egon direnean ere. Baina aurreko legealdian orduko Gobernu Taldeak kokapena zehazteko erabilitako prozedurarekin desadostasuna behin eta berriro adierazi dute. Izan ere, ez zen herritarren parte hartzea bideratzeko prozesurik sustatu, eta presazko erabaki batean oinarrituta, ez ziren irisgarritasun edo bestelako irizpideak behar bezala kontuan hartu.

Gobernu Taldeak lurren lagapenerako espedientea sakonki aztertu du eta amaitu gabe dagoela egiaztatu du. Premiaz hasitakoa bada ere, urtebete geldituta egon da eta lurren lagapena ez da oraindik osorik gauzatu.

Egoera honen aurrean, Gobernu Taldeak bere harridura agertu nahi du, berari egokitu bait zaio lurren desafektazioa erregistroan inskribatzea. Are gehiago, Osoko Bilkurak 2022ko urtarrilaren 31n Osakidetzarekin lurren lagapenerako hitzarmena onartu bazuen ere, oraindik ere sinatu gabe dago.

"Gaur gaurkoz hitzarmena sinatu gabe dago, eta sinatuta egotea beharrezkoa da lurren lagapena ixteko" azpimarratu du Ainize Gastakak.

Ez ohiko egoera honetan, Gobernu Taldeak aztergai izan du Osakidetzak eskatutako obra lizentzia eta, legezko baldintza guztiak betetzen dituzenez, ematea erabaki du. Ondorioz, kokapenaren afera amaitutzat eman du.

Etorkizuneko Laudioko Anbulatorioak eskainiko dituen zerbitzuak eta irisgarritasuna izango dira Gobernu Taldearen lanaren lehentasuna. *"Ahalik eta ekipamendu osatuenak izango dituen Anbulatorioa lortu nahi dugu. Herritarren parte hartzea ipar, gure esku dagoen guztia egingo dugula transmititu nahi diogu Laudio herriari"*.